

FIEZ BLAI

- **Jakintza adarra:** Zientziak
- **Campusa:** Bizkaia
- **Ikastegi antolatzailea:** Zientzia eta Teknologia Fakultatea
- **Gradua/k:**
 - Fisika
 - Ingeniaritza Elektronikoa
 - Gradu Bikoitza: Fisika + Ingeniaritza Elektronikoa
- **Garapen-lekua (helbidea):** Zientzia eta Teknologia Fakultatea.
Sarriena auzoa z/g, Leioa

1. JARDUERAREN DESKRIBAPEN LABURRA

FIE en Acción-FIEz Blai ekimenaren helburua Batxilergoko ikasleak Fakultatera urtero modu aktiboan hurbiltzea da; horrela, ikasleek beraien eguneroko esperientziatik hurbil dauden zenbait praktika arrunt egingo dituzte, oro har zientzia eta teknologiarekiko duten erakarpena sustatzeko bide gisa. Horrez gainera, komunikazio-bide berri bat irekitzen da unibertsitateko eta bigarren hezkuntzako irakasleen artean. Egoera horrek, berriz, gure zereginak eta beharrak hobeto ezagutzeko aukera ematen digu, eta baliteke ikasleen sarbide-profila hobetzea ere. Funtsean, FIE en acción-FIEz Blai ekimenean proposatzen diren jarduerak bai Fisikan, Ingeniaritza Elektronikoa edo bien Gradu Bikoitzean interesa duten bigarren hezkuntzako ikasleek itxaropenak ase nahi dituzte

2. LANDUKO DIREN GAIK/EDUKIAK

- Difrakzioa eta argi-iturri desberdinen espektroak (CD/DVD baten bitartez espektroskopia bat eraikitzea; CD/DVD baten pisten neurriaren neurketa, eta abar).
- Mikrouhin-labea eta Faradayren Kaiola (uhin elektromagnetiko geldikorren eta haien abiaduraren analisia, "detektagailu" moduan urtzen diren gazta-xaflak erabiltzea; mikrouhin-labea Faradayren Kaiola moduan erabiltzea, labearen eremu elektromagnetikoaren eraginez, bonbillak piztea; etab.).
- Indukzio elektromagnetikoa (ikasleek motorrak eratuko dituzte, metal-harilkatzeko batekin, pila batekin eta iman batekin).
- Hutsarekin lotutako esperimentu samurrak eta askotarikoak: besteak beste, airean dauden objektuetan Arkimedesen bultzadak eragindako ondorioak ikusi ahal izango dira, eta baita Magdeburgoren hemisferioek eragindako atmosfera-presioaren eragina, uhin mekanikoak hedatzeko

euskarri materiala nola behar den grabitatearen azelerazioaren konstantzia, etab.

3. EGINGO DIREN EKINTZAK

Saio bakoitzean 18 ikaslek hartuko dute parte, eta aipatutako praktiketako 3 gauzatu beharko dituzte (6 ikasle praktika bakoitzeko). Gainera, Fisika edo Ingeniaritza Elektronikoko ikerkuntzako laborategi bat bisitatuko da.

4. EGUTEGIA ETA PLAZAK

Data	Hizkuntza	Txanda	Ordua	Plazak
2026-01-13	Euskara	Goizez	09:30-13:00	18
2026-01-14	Gaztelania	Goizez	09:30-13:00	18
2026-01-15	Euskara	Goizez	09:30-13:00	18